*5. artikulua.*– Hauek izango dira Hezkuntza-Osasuna-Drogamenpekotasuna Elkarlanerako Batzorde Mistoaren zereginak, sailetako eskumenetan oinarritutakoari atxikiz:

a) Lehentasunak proposatzea osasun-gaiak lantzeko eta horiek hezkuntzaren eremuan garatzeko.

b) Urteko jarduera planak definitzea, eta horiek burutu daitezen bultzatu eta ebaluatzea.

c) Hezkuntza-materialak presta daitezen bultzatu, baloratu eta bideratzea.

d) Dagokion erakundearekin koordinatzea, gai espezifikoetarako hala behar denan.

e) Esku hartzeko urteko planak burutzeko behar diren laguntza-egiturak proposatzea.

f) Osasuna Sustatzeko Europako Eskola Sareak ezarritako lan–ildoari jarraitzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Osasun sailburuaren 1996ko martxoaren 26ko Agindua, osasunaren hezkuntza eta sustapenaren arloan elkarlana bideratzekoa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko irailaren 22a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLAN IRIBAR.

*Artículo 5.*– La Comisión Mixta de Coordinación Educación-Sanidad-Drogodependencias, en el ejercicio de las respectivas competencias departamentales, tendrá las siguientes funciones:

a) Proponer las prioridades de los diferentes temas de salud y de su desarrollo en el ámbito educativo.

b) Definir los planes anuales de actuación, favoreciendo su realización y evaluación.

c) Orientar, valorar y fomentar la elaboración de materiales educativos.

d) Coordinarse con los organismos pertinentes en los temas específicos que se requieran.

e) Proponer las estructuras de apoyo necesarias para llevar a cabo los distintos planes anuales de intervención.

f) Estimular la línea de trabajo marcada por la Red Europea de Escuelas Promotoras de Salud.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 26 de marzo de 1996, de los Consejeros de Educación, Universidades e Investigación y de Sanidad, sobre colaboración en materias de promoción y educación para la salud.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de septiembre de 2000.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

El Consejero de Trabajo, Justicia y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLAN IRIBAR.

## KULTURA SAILA

## Zk-5289

219/2000 DEKRETUA, azaroaren 7koa, Kulturaren Euskal Kontseilua sortu eta arautzen duena.

Kultura-politika erakunde-jarduera berri samarra da gure gizartean; bere garapena bi eskubide egikaritzeak ahalbideratu du; eskubideetariko bata, adierazpen askatasuna da eta bestea, bizitza-kalitatea. Erakundeen aldetik kultura-politikari ematen zaion bultzada alor ho-

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-5289

DECRETO 219/2000, de 7 de noviembre, por el que se crea y regula el Consejo Vasco de la Cultura.

La política cultural es una actividad institucional todavía reciente en nuestra sociedad, cuyo desarrollo ha sido posible gracias al ejercicio del derecho a la libertad de expresión y a la mejora de la calidad de vida. Su impulso institucional responde a un amplio abanico de

rretan diren premia ugari eta anitzengatik da, horietarikoen artean nabarmenak dira: herritarrak kulturara iristea orokortu beharra, herrien memoria historiko kulturala zaindu, kultura-aniztasuna babestu, sortze-lana eta berritzea sustatu, eta aberastasuna eta lanpostuak sortu beharra.

Gaur egun, kultura-politikako eskuduntza herri administrazioetako maila ezberdinek egikaritzen dute, bereziki, autonomia erkidegoak, foru-administrazioak eta toki-administrazioak. Halaber, gero eta ugariagoak dira eta eragin handiagoa dute kultur jardueretan parte hartzen duten iniziatiba pribatuek.

Bestalde, kultura, gaur egun sekula baino gehiago, aldakorra, unibertsala eta lokala den errealitatea da, gizartearen garapenean parte hartzen duten proiektu integralen zati. Kulturak balio pertsonala, soziala eta ekonomikoa ere badu. Presente dago, adibide nolabait adierazgarriak ipintzearren, hirigintzan, hezkuntzan, merkataritzan eta turismoan. Hau da, kultura, sailen jarduteko eremu esklusiboa izatetik era askotako herri agenteak eta pribatuak batzen dituen gune izatera heldu da

Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da kultura-politikaren lanabesak errealitate berrira egokitzea. Horregatik, kultura modu global batean hartu eta partaidetza, elkarrizketa eta lankidetza bideratuko dituen foro bat sortzea proposatzen da. Foro horretan parte hartuko dute honako sektore hauek: administrazioak, iniziatiba pribatuak, eta, oro har, kultura-agenteek, eta bere zeregin nagusia kulturaren plan orokorra egitea izango da. Plan horrek hausnarketa- eta koordinazio-ahalegin handiak eskatuko ditu, eta bidea emango du euskal kulturaren politika modu koherenteagoan eta eraginkorragoan garatzen lagunduko duten estrategia komunak definitzeko.

Jarritako helburu berriak lortu ahal izateko eta bere funtzionamenduan efizientzia handiagoa bermatzeko lehengo Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorraren ordez Kulturaren Euskal Kontseilua proposatzen da, honako Dekretu honek sortu eta arautzen duena hain zuzen ere.

Kulturaren Euskal Kontseiluak bere baitan hartuko ditu euskal kulturaren ikuspegi anitzak, sentsibilitateak eta jardun arloak eta euskal kulturaren barruan erakundeetako ordezkariak eta ospetsuak diren pertsonalitateak.

Abenduaren 17ko 392/1985 Dekretuan oinarrituta Eusko Jaurlaritzak Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorra sortu zuen. Dekretu hori apirilaren 15eko 93/1986 Dekretuak aldatu zuen eta azken hori berriz, abenduaren 15eko 376/1987 Dekretuak. Honako honek berriz azken aipatutakoa ordeztuko du.

necesidades, entre las que destaca la generalización del acceso a la cultura, el cuidado de la memoria históricocultural de los pueblos, la preservación de la diversidad cultural, el fomento de la creación y de la innovación, y la generación de riqueza y de puestos de trabajo.

En la actualidad, la competencia en política cultural es ejercida por diversos niveles de las administraciones públicas, y muy particularmente por la administración autonómica, foral y municipal. Asimismo, cada vez son más frecuentes y tienen mayor incidencia las iniciativas privadas que intervienen en la actividad cultural.

Por otra parte, la cultura es, hoy más que nunca, una realidad cambiante, universal y a la vez local, que forma parte de proyectos integrales de desarrollo de la sociedad. La cultura tiene un valor personal, social y también económico. Está presente en el urbanismo, en la educación, en la industria, en el comercio y en el turismo, por poner algunos ejemplos significativos. Esto es, ha dejado de ser un campo de actuación exclusivo de los departamentos de cultura para convertirse en un espacio en el que concurren agentes públicos y privados de muy diversa naturaleza.

En consecuencia, se detecta la necesidad de adaptar los instrumentos de la política cultural a esta nueva realidad. Es por ello que, desde una aproximación global a la cultura, se propone crear un foro de participación, diálogo y cooperación entre los sectores de la administración, la iniciativa privada y, en general, los agentes culturales, que tenga como misión principal elaborar un plan general de la cultura. Este plan requerirá realizar un importante esfuerzo de reflexión y coordinación, y permitirá la definición de estrategias comunes que favorezcan un desarrollo más coherente y eficaz de la política cultural vasca.

A fin de alcanzar los nuevos objetivos planteados y de garantizar una mayor eficiencia en su funcionamiento, se propone la sustitución del anterior Consejo General de la Cultura Vasca por el Consejo Vasco de la Cultura, que se crea y regula por el presente Decreto.

El Consejo Vasco de la Cultura dará cabida a las diversas perspectivas, sensibilidades y áreas de actividad de la cultura vasca y contará con la presencia de representantes de organismos y de personalidades de reconocido prestigio en el ámbito de la cultura vasca.

En base al Decreto 392/1985 de 17 de diciembre, el Gobierno Vasco creó el Consejo General de la Cultura Vasca, que fue modificado respectivamente por el Decreto 93/1986 de 15 de abril y el Decreto 376/1987 de 15 de diciembre y que, finalmente, será sustituido por este decreto.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko azaroaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Dekretuaren xedea

Dekretu honen xedea Kulturaren Euskal Kontseilua sortzea da eta bere organoak, osakera, egitekoak, izendapen-sistema eta funtzionamendurako erregimena arautzea.

*2. artikulua.*– Izaera

Kulturaren Euskal Kontseilua kulturaren eremuan partaidetza, lankidetza eta aholkularitzarako goi mailako kide anitzeko organoa da.

Dekretu honetan aitortzen zaizkion edo aurrerantzean aitor dakizkion beste zeregin batzuen gain bere funtsezko zeregina Kulturaren Plan Orokorraren zirriborroa aztertzea eta onartzea izango da. Plan horretan beste gauza batzuen artean jarduteko zeharkako jomugak jasoko dira, eta baita kultur ondarearen, museoen, artxibategien, liburu eta liburutegien, ikus-entzunezkoen, musikaren, arte eszenikoen eta arte plastikoen arloetan sektorekako garapenak egitea.

*3. artikulua.*– Atxikipen organikoa

Kulturaren Euskal Kontseilua Kultura Sailari atxikia egongo da, baina ez da bere egitura organikoan txertatuko.

*4. artikulua.*– Antolamendua.

1.– Kulturaren Euskal Kontseiluak Batzorde Osoaren edo Batzorde-Atal Iraunkorraren bidez jardungo du. Bere baitan Batzorde-atal bereziak sortu ahal izango dira.

2.– Batzorde Osoaren eta Batzorde-Atal Iraunkorraren buru Kultura sailburua izango da. Berak izendatuko ditu saileko teknikarien artean Kulturaren Euskal Kontseiluaren Idazkaria eta ordezkoa.

*5. artikulua.*– Batzorde Osoaren osakera

Honako hauek dira Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoaren kideak:

a) Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, lehendakaria izango dena.

b) Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.

c) Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaria.

d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sortu eta Zabaltzeko zuzendaria.

e) Euskal Irrati Telebista erakundeko zuzendari nagusia edo berak ordezkari izendatutako goi-kargudun pertsona.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 7 de noviembre de 2000,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto del Decreto

Es objeto del presente Decreto crear el Consejo Vasco de la Cultura y regular sus órganos, composición, funciones, sistema de designación y régimen de funcionamiento.

*Articulo 2.*– Naturaleza

El Consejo Vasco de la Cultura es el órgano colegiado superior de participación, cooperación y asesoramiento en el ámbito de la Cultura.

Sin perjuicio de cuantos otros se le atribuyen por éste o se le puedan atribuir, su cometido esencial será analizar y aprobar un borrador del Plan General de la Cultura en el que se contemplen, entre otros aspectos, líneas transversales de actuación, así como desarrollos sectoriales en el campo del patrimonio cultural, museos, archivos, libro y bibliotecas, audiovisual, música, artes escénicas y artes plásticas.

*Artículo 3.*– Adscripción orgánica

El Consejo Vasco de la Cultura estará adscrito al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, aunque no se integrará en su estructura orgánica.

*Artículo 4.*– Organización

1.– El Consejo Vasco de la Cultura actúa en Pleno o en Comisión Permanente. En su seno, podrán crearse Comisiones Especiales.

2.– El Pleno y la Comisión Permanente serán presididos por el titular del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, que designará un Secretario y suplente del Consejo Vasco de la Cultura, entre el personal técnico de su Departamento.

*Artículo 5.*– Composición del Pleno

1.– Son miembros del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura:

a) La Consejera de Cultura del Gobierno Vasco, que ostentará su presidencia.

b) El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deporte del Gobierno Vasco.

c) El Director de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

d) El Director de Creación y Difusión Cultural del Gobierno Vasco.

e) El Director General de EITB o la persona con la condición de alto cargo en la que delegue.

f) Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak izendatutako kidea; kide horrek gutxienez zuzendari kargua izango du.

g) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak izendatutako kidea; kide horrek gutxienez zuzendari kargua izango du.

h) Ogasun eta Herri-Administrazio sailburuak izendatutako kidea; kide horrek gutxienez zuzendari kargua izango du.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundietako Kultura diputatuak edo eurek izendatutako ordezkariak; ordezkariek gutxienez zuzendari kargua izango dute.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen hiriburuetako Kultura arloko hiru zinegotziak.

k) Euskadiko udalen artean ordezkapenik adierazgarriena duen udal elkartearen ordezkaria.

l) Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak izendatuta, gehienez ere, hogei pertsona. Kide horiek euskal kulturaren eremu ezberdinek eta erakundeek pertsona ospetsuen artean proposatutakoak izango dira euren ordezkari izateko.

ll) Kulturaren Euskal Kontseiluaren idazkaria. Batzorde Osoaren bileretan arituko da; horietan eskubidea izango du iritzia emateko baina ez botorik emateko.

2.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren kide duten karguarengatik direnek automatikoki utziko diote kide izateari kide izendatuak izateko kontuan izandako ezaugarri hori galtzen dutenean.

3.– Kultura sailburuak izendatutako kideen kargualdia lau urtekoa izango da. Kargualdi hori bukatutakoan berritu ahal izango da beste lau urterako. Kargualdia bukatu ondoren, aipatutako kideek beren zereginetan jardungo dute euren ordezkoen izendapenak eragina izan arte.

4.– Heriotza, ezintasuna, karguari uko egitea edo antzerako arrazoiren batengatik hutsik suertatutako karguak hilabeteko epean beteko dira, behin egoera-aldaketaren berri Kontseiluaren Idazkaritzari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita. Kide izendatu berriaren kargualdiaren iraupena ordezkatu duen kideari geratzen zitzaiona izango da.

5.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoaren lehendakaritzak baimendu ahal izango du bilera horietara, eztabaidatzekoak diren gaietako adituak eramatea. Aditu horiek bakarrik eurei dago(z)kien gai edo gaietan izango dute hitza eta ez dute boto eskubiderik izango.

*6. artikulua.–* Kontseiluaren Batzorde Osoaren egitekoak

f) Un miembro, con rango mínimo de Director, designado por el Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

g) Un miembro, con rango mínimo de Director, designado por el Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

h) Un miembro, con rango mínimo de Director, designado por el Consejero de Hacienda y Administración Pública.

i) Los tres Diputados de Cultura de las Diputaciones Forales de la Comunidad Autónoma Vasca, o personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Director.

j) Los tres Concejales de Cultura de las capitales de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma Vasca.

k) Un representante de la asociación de municipios más representativa de los Municipios de Euskadi.

l) Hasta veinte personas designadas por el titular del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco en representación de los distintos sectores y organismos de la cultura vasca, a propuesta de los mismos, y entre personas de reconocido prestigio.

ll) El Secretario del Consejo Vasco de la Cultura, que actuará como tal, con voz y sin voto, en las reuniones del Pleno.

2.– Aquellos miembros del Consejo Vasco de la Cultura que lo fueran por razón de su cargo, cesarán automáticamente con la pérdida de la condición en virtud de la cual fueron nombrados.

3.– El mandato de los miembros designados por el titular del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco tendrá una duración de cuatro años, finalizado el cual podrán ser designados de nuevo para otro mandato. Transcurrido este plazo, éstos continuarán desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de sus sustitutos.

4.– Las vacantes que se produzcan por defunción, incapacidad, renuncia o causas similares serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comunique tal circunstancia a la Secretaría del Consejo y por el tiempo que resta de mandato del miembro sustituido.

5.– La Presidencia del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura podrá autorizar la presencia en sus sesiones, o en parte de ellas, de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que en todo caso actuarán con voz y sin voto en el tema o temas que fundamentan su presencia.

*Artículo 6.–* Funciones del Pleno

Batzorde Osoak honako eskumen hauek izango ditu:

a) Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak eginiko Kulturaren Plan Orokorraren zirriborroa taxutzea, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordean aurkeztu aurretik.

b) Kultura arloan modu koordinatuan jardutea erraztu dezaten neurriak proposatzea.

c) Kulturaren babesaz, sormenaz, trebakuntzaz, ekoipenaz eta zabalkundeaz loturiko gaiak ikertzea eta aztertzea.

d) Batzorde Iraunkorrak egingo duen urteko memoria onartzea.

e) Behin onartu eta gero, Kulturaren Plan Orokorra ebaluatzea.

f) Eskumena izango du legeek edo arautegiek Kulturaren Euskal Kontseiluaren esku uzten duten bestelako egitekoak garatzeko.

7*. artikulua.–* Batzorde Iraunkorraren osakera

1.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren kide izango dira:

a) Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua, bere lehendakaria izango dena.

b) Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundietako Kultura diputatuak edo eurek izendatutako ordezkariak; ordezkariek gutxienez zuzendari kargua izango dute.

d) Batzorde Osoak bere kideen artean proposatutako eta Kultura sailaren titularrak izendatutako batzordeko bost kide. Batzorde Osoan erakunde-kargua izateagatik daudenak ezin izango dira proposatu.

e) Kulturaren Euskal Kontseiluaren idazkaria bera izango da Batzorde Iraunkorraren idazkaria ere eta bileretan hitz egiteko eskubidea izango du baina ez botoa emateko.

2.– Batzorde Iraunkorraren Lehendakaritzak baimendu ahal izango du bilera horietara, eztabaidatzekoak diren gaietako adituak eramatea. Aditu horiek bakarrik eurei dago(z)kien gai edo gaietan izango dute hitza eta ez dute boto eskubiderik izango.

*8. artikulua.–* Batzorde Iraunkorraren egitekoak

Hona Batzorde Iraunkorrari dagozkion egitekoak:

a) Kulturaren Euskal Kontseiluaren gaien ohiko tramitazioa, Batzorde Osoaren bilerarik ez denean.

El Pleno del Consejo será competente para:

a) Analizar y aprobar el borrador del Plan General de la Cultura elaborado por la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deporte, con carácter previo a su presentación al Consejo del Gobierno Vasco.

b) Proponer medidas que favorezcan la actuación coordinada en materia de cultura.

c) Estudiar y analizar cuantas cuestiones se refieran a la protección, creación, formación, producción y difusión cultural.

d) Aprobar la memoria anual de actividad elaborada por la Comisión Permanente.

e) Evaluar, una vez haya sido aprobado, el Plan General de la Cultura.

f) Cualquier otra función que le sea encomendada por las leyes y reglamentos al Consejo Vasco de la Cultura.

*Artículo 7.–* Composición de la Comisión Permanente

1.– Formarán parte de la Comisión Permanente del Consejo Vasco de la Cultura:

a) La Consejera de Cultura del Gobierno Vasco, que ostentará su presidencia.

b) El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deporte del Gobierno Vasco.

c) Los tres Diputados de Cultura de las Diputaciones Forales de la Comunidad Autónoma Vasca, o personas en quienes deleguen, con rango mínimo de Director.

d) Cinco personas designadas por el titular del Departamento de Cultura, a propuesta del Pleno, de entre sus miembros que no lo sean por ocupar cargos institucionales.

e) El Secretario del Consejo Vasco de la Cultura actuará como tal, con voz y sin voto, en las reuniones de la Comisión Permanente.

2.– La Presidencia de la Comisión Permanente podrá autorizar la presencia en sus sesiones, o en parte de ellas, de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que en todo caso actuarán con voz y sin voto en el tema o temas que fundamentan su presencia.

*Artículo 8.–* Funciones de la Comisión Permanente

Corresponden a la Comisión Permanente las siguientes funciones:

a) La tramitación ordinaria de los asuntos del Consejo Vasco de la Cultura cuando no esté reunido el Pleno.

b) Kulturaren Euskal Kontseiluaren jardueren gaineko egutegiak eta lehentasunak proposatzea Batzorde Osoari eta euren betetzearen jarraipena egitea.

c) Kulturaren Euskal Kontseiluaren jardueren urteko txostena osatzea, Batzorde Osoak onartu dezan.

d) Legeek, erregelamenduek edo Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoak aitortutako beste edozein egiteko.

*9. artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseiluko Lehendakaritzaren, Idazkaritzaren eta kideen egitekoak:

1.– Batzorde Osoaren eta Batzorde Iraunkorraren Lehendakaritzaren egitekoak Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean organo horri begira jasotzen direnak izango dira.

Horietaz gain, honako hauek izango dira bere egitekoak:

– Gai ordenan sartu gabeko gaiak tratatzea proposatzea; beti ere, tartean resazko arrazoiak daudenean.

– Kulturaren Euskal Kontseiluak bere egitekoak betetzeko beste hirugarren batekin izan ditzakeen harremanen solaskidea izatea edo solaskidea nor izango den zehaztea.

– Honako Dekretu honetan edo beste xedapenen batean egotzi dakizkion bestelako egitekoak.

2.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren Idazkariaren egitekoak aipatutako lege-xedapenean jasotakoak izango dira eta formalki egotzi dakizkiokeen beste batzuk.

3.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren gainontzeko kideei lege-xedapen ber-berean kide anitzeko organoentzako ezartzen diren eskubide eta eginbeharrak egotziko zaizkie.

*10. artikulua.–* Batzorde-atal bereziak

1.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren baitan izaera teknikoa izango duten batzorde-atal bereziak eratu ahal izango dira. Emango zaizkien egitekoen arabera Batzorde Osoak edo Batzorde Iraunkorrak lankidetza eta laguntza puntuala edo iraunkorra eskaintzeko baimendu eta izendatu ahal izango dituzte.

Batzorde-atal berezien helburua Batzorde Osoari edo Batzorde Iraunkorrari laguntzea izango da eta kulturaren alde bereziak aztertzea izango da, horretarako gai jakinen inguruko lanak, azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo dituzte bileran eztabaidatzeko eta onartzeko, bai Batzorde Osoan bai Batzorde Iraunkorrean.

2.– Batzorde-atal berezien funtzionamendu erregimena Kultura sailaren titularrak zehaztu ahal izango du bai balio orokorrez, bai bereziki batzorde bakoitzarena. Azken kasu honetan beti ere batzorde bakoitzaren sortze-erabakian ezarri ahal izan diren jarraibide orokorrei lotutako erregimena izango da.

b) Proponer al Pleno los calendarios y prioridades de actuación del Consejo Vasco de la Cultura y hacer el seguimiento de su cumplimiento.

c) Elaborar, para su ulterior aprobación por el Pleno, la memoria anual de actividad del Consejo Vasco de la Cultura.

d) Cualquier otra función que le sea encomendada por la Leyes, Reglamentos o por el Pleno del Consejo Vasco de la Cultura.

*Artículo 9.–* Funciones de la presidencia, secretaría y miembros del Consejo Vasco de la Cultura.

1.– La Presidencia del Pleno y de la Comisión Permanente ejercerá las funciones que para tal órgano se contemplan en el artículo 23 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Asimismo, le corresponderá:

– Proponer el tratamiento de asuntos no incluidos en el orden del día cuando existan razones de urgencia que los justifiquen.

– Ser el interlocutor o determinar quién lo vaya a ser en las relaciones del Consejo Vasco de la Cultura que procedan con cualquier tercero, en aras del cumplimiento de los cometidos asignados.

– Cualquiera otra que en el presente Decreto u otra disposición se le pudiera atribuir.

2.– El Secretario del Consejo Vasco de la Cultura ejercerá las funciones que en la referida disposición legal se contempla para el mismo y cuantas otras pudieran serle formalmente asignadas.

3.– Al resto de los miembros del Consejo Vasco de la Cultura corresponderán los derechos y deberes que, en virtud de la misma disposición legal, quedan fijados para los miembros de los órganos colegiados.

*Artículo 10.–* Comisiones Especiales

1.– En el seno del Consejo Vasco de la Cultura, podrán constituirse Comisiones Especiales de carácter técnico que, en función de los cometidos que se les asignen, serán autorizadas y designadas por el Pleno o por la Comisión Permanente para la colaboración y apoyo permanente o puntual.

Estas Comisiones Especiales tendrán por objeto auxiliar al Pleno o a la Comisión Permanente y abordar aspectos específicos de la cultura, mediante la realización de trabajos, estudios, informes y propuestas sobre materias concretas que sirvan de base para su debate y aprobación en el Pleno y en la Comisión Permanente.

2.– El régimen de funcionamiento de las mismas podrá ser fijado con carácter general por el titular del Departamento de Cultura, o con carácter singular, sujeto a las pautas generales que hayan podido ser dictadas, por el acuerdo de creación.

3.– Batzorde bereziak Euskal Herriko Herri-Administrazioetako kidez eta batzorderako aproposen jotako kultura arloko profesionalez osatu ahal izango dira.

4.– Kulturaren Euskal Kontseiluaren batzorde bereziek Kontseiluaren Idazkaritzaren laguntza izango dute.

*11. artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseiluaren bilerak

Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoak gutxienez urtean bitan bilduko da. Bilduko da, halaber, bere Lehendakaritzak egoki irizten dioenean eta kideen gehiengoak idatziz hala eskatutakoan.

Batzorde Iraunkorra lau hilabetez behin bilduko da gutxienez. Bilduko da, halaber, bere Lehendakaritzak egoki irizten dionean eta kideen gehiengoak idatziz hala eskatutakoan

*12. artikulua.–* Kulturaren Euskal Kontseilurako deiak

1.– Kulturaren Euskal Kontseilurako deiak, dela Batzorde Osorako dela batzordeetarako, bakoitzaren Lehendakaritzak egingo ditu bilera izan baino gutxienez zazpi egun aurretik. Deialdian bileraren gai-zerrenda, eguna, tokia eta ordua jasoko dira.

2.– Ez dute aipatutako denbora baldintza hori bete beharrik izango lehendakaritzaren ustez presazko egoera dela medio deitutako bilerak.

3.– Era horretako bilerak balio osoz garatu daitezen, bilera-hasieran bileraren lehen puntua izango da organoaren kideen gehiengoak bileraren presazko izaera berrestea.

*13. artikulua.–* Bileren gai-ordena

Kulturaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Osoko edo Batzorde Iraunkorreko edozein kidek proposatu ahal izango dio dagokion Lehendakaritzari gai-zerrendan punturen bat sartzea, horretarako, bi baldintza bete beharko ditu: bilera baino 48 ordu aurretik aurkeztea proposamena eta proposamenarekin batera proposamena justifikatzen duen txosten laburra aurkeztea.

*14. artikulua.–* Eraketa

1.– Bai Batzorde Osoa bai batzordeak balio osoz eratuko dira lehen deialdian bere kideetariko erdiak eta bat gehiago bertaratzen direnean.

2.– Behar den besteko quorum-ik ez balego bigarren deialdia eginez eratu ahal izango dira; kasu honetan deialdia lehena izan eta ordu erdira egingo da eta nahikoa izango da kideen herena bertaratzea.

3.– Bilerak balio osoz egiteko ezinbestekoa izango da beti Lehendakaritza eta Idazkaria edo euron ordezkoak bileretan presente izatea.

3.– Las Comisiones Especiales podrán integrarse por miembros de las Administraciones Públicas Vascas y por los profesionales del sector de la cultura que se consideren más idóneos a su constitución.

4.– Las Comisiones Especiales del Consejo Vasco de la Cultura contarán con el apoyo de la Secretaría del Consejo.

*Artículo 11.–* De las reuniones del Consejo Vasco de la Cultura

El Consejo Vasco de la Cultura se reunirá en Pleno, por lo menos, dos veces al año. También podrá reunirse a iniciativa de la Presidencia siempre que lo considere oportuno y a petición por escrito de la mayoría de sus miembros.

La Comisión Permanente se reunirá, por lo menos, cuatro veces al año y podrá también reunirse a iniciativa de la Presidenta siempre que lo considere oportuno y a petición por escrito de la mayoría de sus miembros.

*Artículo 12.–* Convocatorias del Consejo Vasco de la Cultura

1.– Las convocatorias del Consejo Vasco de la Cultura, ya en Pleno o en Comisiones, serán realizadas por orden de la Presidencia respectiva con una antelación mínima de siete días naturales. En la convocatoria habrá de fijarse el orden de asuntos, el día, lugar y hora de celebración de la sesión.

2.– Quedarán dispensadas de dicho requisito de antelación mínima aquellas sesiones que a juicio de la presidencia revistan urgencia.

3.– Para que se desarrollen válidamente, la urgencia de tales reuniones deberá ser ratificada como primer punto de la sesión por la mayoría de los miembros del órgano.

*Artículo 13.–* Orden del Día de las reuniones

Cualquier miembro del Pleno o de la Comisión Permanente del Consejo Vasco de la Cultura podrá proponer a la Presidencia respectiva la inclusión de algún punto en el Orden del Día, siempre que lo haga con un mínimo de 48 horas de antelación y acompañe a su propuesta una sucinta memoria justificativa de la propuesta.

*Artículo 14.–* Constitución

1.– Tanto el Pleno, como las Comisiones quedarán válidamente constituidos cuando concurran en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros.

2.– Si no existiese quórum suficiente, se podrá constituir en segunda convocatoria treinta minutos después de la primera, siendo en este caso suficiente con la presencia de la tercera parte de sus miembros.

3.– La celebración válida de las sesiones requerirá, en todo caso, la presencia de la Presidencia y del Secretario, o de las personas que les sustituyan.

*15. artikulua.–* Erabakiak hartzea

1.– Txostenak, gomendioak eta gainontzeko testuak, Batzorde Osoaren edo, hala dagokionean, Batzorde Iraunkorraren kideen gehiengoak erabaki beharko ditu.

2.– Botaziora jo beharra izanez gero, beharrezkoa izango da gehiengo soila lortzea, berdinketa gertatuz gero Lehendakaritzaren kalitatezko botoak deuseztatuko du berdinketa hori.

Botazio-sistema printzipio hauetan oinarrituko da: boto zuzena, pertsonala eta ordeztu ezina. Horrez gain kideetariko norbaitek hala eskatuz gero Lehendakaritzari botoa sekretuzkoa izatea bermatu beharko da.

3.– Bileran den edozein kidek gehiengoaren erabakiaren aurkako banakako botoak eman ahal izango ditu, beti ere, bilera bukatu baino lehen iragartzen badu eta Kontseiluaren Idazkariari idatziz helarazten bazaizkio bilera bukatu eta bost egunen barruan. Banakako boto horiek gehiengoak hartutako erabakia jasotzen duen testuan jasoko dira.

4.– Batzorde Osoaren, Batzorde Iraunkorraren eta batzorde berezien erabakiak bilera-agirian jasoko dira. Bilera agiriak Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen 30/1999 Legeak jasotzen dituen edukiak jasoko ditu eta bertan zehazten den prozedurari jarraituz egikarituko da.

*16. artikulua.–* Gastuak.

Kulturaren Euskal Kontseiluaren kide izateagatik ez da ordainsaririk jasoko, baina Kontseilu horretako kideek eskubidea izango dute otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak ezarritakoaren arabera gastuak eta dietak ordain diezazkien.

XEDAPENAK GEHIGARRIAK

*Lehena.–* Kontseiluaren kideak proposatzea

Dekretu honetako 5.1 artikuluaren I paragrafoan aurreikusitako xederako, dekretua indarrean sartu eta hilabeteko epean, Kultura sailaren titularrak beretzat adierazgarrienak diren Euskal Kulturaren Erakunde eta organismoetara joko du Kulturaren Euskal Kontseiluan parte hartzeko eskainitako kargua onartu eta erakundearen ordez kontseiluaren kide izango denaren izendapenaren berri izateko. Epe horretantxe sailburuak euskal kulturan duten ospeagatik Kontseiluko partaide izatea interesgarri irizten dizkion pertsona fisikoengana joko du izendapena onar dezaten.

*Bigarrena.–* Lankidetza

Kulturaren Euskal Kontseiluak bultzatu egingo du Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko euskal kulturadun lurraldeetako herri-erakundeekiko eta iniziatiba pribatuarekiko lankidetza

*Artículo 15.–* Adopción de acuerdos

1.– Los informes, recomendaciones y demás textos, serán adoptados por mayoría de los miembros del Pleno o, en su caso, de la Comisión Permanente.

2.– En caso de recurrir a votación, será necesario obtener la mayoría simple, dirimiéndose los empates mediante el voto de calidad de la Presidencia.

El sistema de votación responderá a los principios de voto directo, personal e indelegable, debiendo garantizarse el voto secreto cuando cualquiera de los miembros lo solicite a la Presidencia.

3.– Cualquier miembro presente en la sesión podrá formular votos particulares contra el acuerdo de la mayoría, siempre que lo anuncien antes de levantarse la sesión y se remitan al Secretario del Consejo por escrito en un plazo no superior a cinco días naturales, tras la finalización de la sesión. Dichos votos particulares se incorporarán al texto del acuerdo de la mayoría.

4.– Los acuerdos del Pleno, de la Comisión Permanente y de las Comisiones Especiales, constarán en acta, que se formulará con los contenidos y procedimiento fijado en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 16.–* Gastos

La pertenencia al Consejo Vasco de la Cultura no dará lugar a retribución alguna, pero los miembros de dicho Consejo tendrán derecho al abono de los gastos y dietas en los términos fijados por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Propuesta de miembros del Consejo

A los efectos previstos en el párrafo l, del artículo 5.1 de este Decreto, en el plazo de un mes, contado a partir de la entrada en vigor del mismo, el titular del Departamento de Cultura se dirigirá a aquellas Entidades y Organismos de la Cultura Vasca que considere más representativos, recabando la aceptación del cargo y designación de la persona que en su representación vaya a formar parte del Consejo Vasco de la Cultura. Igualmente en tal plazo, se dirigirá a las personas físicas que por su prestigio en el mundo de la cultura vasca considere de interés su participación en tal órgano, para que éstas procedan a su aceptación.

*Segunda.–* Colaboración

El Consejo Vasco de la Cultura impulsará la colaboración con las instituciones públicas e iniciativa privada de los territorios de cultura vasca no pertenecientes a la Comunidad Autónoma Vasca.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira Dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapenak eta, bereziki, Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorra sortzen duen abenduaren 17ko 392/1985 Dekretua, eta hura aldatzen duten apirilaren 15eko 93/1986 Dekretua eta abenduaren 15eko 376/1987 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena*.– Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko Dekretua aldatzea.

Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 19ko 359/1999 Dekretuaren 8.5 artikuluaren erredakzio berria egin da. Hortaz, hemendik aurrera honela idatzita geratuko da:

> *8. artikulua*. ...
>
> 5.– Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzari atxikita geratzen dira, plangintza orokorrari lotutako organo gisa, Kulturaren Euskal Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea eta Kirolaren Euskal Kontseilua.

*Bigarrena*.– Araubide osagarria.

Dekretu honetan ezarri ez diren prozedurazko gaietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean zehaztutakoa edo bere ordezko xedapenak ezartzen duena izango da ezargarri.

*Hirugarrena*.– Garapena.

Kultura sailburuari eskumena ematen zaio dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

*Laugarrena*.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko azaroaren 7an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan expresamente derogados el Decreto 392/1985 de 17 de diciembre, de creación del Consejo General de la Cultura Vasca, modificado por el Decreto 93/1986 de 15 de abril y el Decreto 376/1987 de 15 de diciembre, y en general cuantas disposiciones de igual o inferior rango contravengan lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera*.– Modificación del Decreto de estructura orgánica del Departamento de Cultura.

Se da nueva redacción al artículo 8.5 del Decreto 359/1999, de 19 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, que en lo sucesivo quedará redactado como sigue:

> «*Artículo 8*. ...
>
> 5.– Quedan adscritos a la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes como órganos relacionados con la planificación general, el Consejo Vasco de la Cultura, la Junta Rectora del Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca y el Consejo Vasco del Deporte».

*Segunda*.– Supletoriedad.

En todas las materias de orden procedimental no contempladas en el presente Decreto se estará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o disposición que la sustituya.

*Tercera*.– Desarrollo.

Se autoriza al titular del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Cuarta*.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de noviembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.